2. mailako tailer bateratua — *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaiak proposatutako ariketa
2012-2013 ikasturtea

2. ariketaren 2. zatia (hiriaren eskala)

Hiri-ibilbideen azterketa (II)

2. mailako tailer bateratuko ikasleek *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaiko "Hiri-ibilbideen azterketa" ariketari azken ukitua emango diote, taldeka. Lehen zatian ibilbideak banan-banan aztertu badira, tailer bateratuko ariketa honetan hiru ibilbideak gainjartzea edo bateratzea eskatzen da, emaitzari dagozkion ondorio grafiko eta idatzizkoak azalduz (hobekuntzak ere proposatu daitezke, ibilbideetan hutsuneak edo etenak detektatu badira).

Arreta berezia jarriko zaio hiru hiri-segiden eta Arabako Arte Ederretako museoaren partzelaren arteko erlazioari.

Ez ahaztu planoaren izenburua, eskala eta legenda adierazten.

Ariketa din A-1 tamainako plano batean emango da:

- CDan (PDF edo irudi-formatoan): arratsaldeko 17:30an, tailer bateratuaren egunean bertan, ondoren aurkezpen publikoak egiteko.
- Paperean, urriaren 31ko (asteazkena) eskola teorikoaren hasieran (18:30an), 1. ariketarekin batera.

Donostian, 2012ko urriaren 11n

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño